

# Preskripzioa: oinarrizko hizkuntz ekintza

*Pello Esnal*

*Hiru erreferentzia nagusi ditugula aritu gara Lourdes Elozegi eta biok, hiru urtean, hamazazpi euskaltegiren kurrikulu-proiektuak elikatzen. Oinarria: HEOK dokumentua (HEOK: Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua). Printzipio bateratzailea: ekintza komunikatiboa. Eta gidaria: Jean-Paul Bronckarten Activité langagière, textes et discours liburua.*

*HEOK dokumentua, batez ere, analisi-lan handi baten emaitza da. Xehe-xehe azaltzen ditu, mailaz maila eta trebetasunez trebetasun, euskalduntzearen helburu, eduki eta ebaluazio-irizpide orokorrak. Analisi-lan xehe horrek, ondoren, ezinbestekoa du sintesi-lana. Horrela bilduko eta zehaztuko ditugu, jardun didaktikoari begira, HEOKan (saka)banatuta dauden elementuak. Dokumentuak berak eskaintzen du horretarako oinarririk. Eta, hain zuzen, biltze-lan horren isla ere badira –kurrikuluaren osagai nagusien zehaztearenaz gain– hamazazpi euskaltegien kurrikulu-proiektuak.*

*Biltze-lan horretan, lehenik, ekintza komunikatibotan zehaztu ditugu mailaz mailako helburuak. Ondoren, helburu horien adierazle diren testu benetakoak bildu ditugu, eta Bronckartek proposatutako eskemaren arabera aztertu. Hala ditugu, besteak beste, zehaztuak berrogei helburu, eta bilduak eta aztertuak berrogeita hamairu testu.*

*Testuen azterketa horrek beste oinarrizko kontzeptu batera ere eraman gaitu, diskurtso-tipoen eta testu-moten eskutik. Hizkuntz ekintza deitu diogu, eta zazpi bereizi ditugu. Oinarrizkoak dira hiru: kontaketa, azalpena eta preskripzioa; eta horiek markatuz eta uztartuz sortzen dira beste laurak: narrazioa, deskribapena, esplikazioa eta argudioa.*

*Lan honetan, preskripzioa (aginduak eta instrukzioak ematea, eta prozedurak azaltzea) aztertuko dugu, aurreko bi HIZPIDE aletan –52an eta 53an– jorratutakoaren harian eta haien osagarri.*

## **Sarrera**

HIZPIDE 53.ean, testu-motak aztertuz, instrukzioaz ere aritu ginen (Esnal, 2003b). Eta instrukzioa, lehenik eta behin, oinarrizko hizkuntz ekintza dela esan genuen, kontaketa eta azalpenaren antzera. Horre-

kin batera, esana utzi genuen, instrukziozkoak ez ezik, testu-mota berekoak direla aginduzkoak eta prozedurazkoak ere; eta horrek terminologi arazo bat sortzen duela: termino bat behar dugula hirurak batera izendatzeko. *Preskripzioa* izan zen gure aukera. Azkenik, bakoitzaren adibide bana aurkeztu genuen, gehiago lantzea ale honetarako utzita.

Izan ere, Bronckartek dioenez, hiru deitura erabiltzen dira instrukziozko testu-motak edo sekuentziak izendatzeko: “segments de textes que l’on qualifie parfois *d’injectifs, d’instructionnels* ou de *procéduraux*” (1996: 239). Alegia, *aginduzkoak, instrukziozkoak* edo *prozedurazkoak*. Baina, Bronckartek *edo (ou)* juntagailua bezala, *eta* ere erabil dezakegu. Nola ikusten dugun testu-mota (multzo oso eta bakar bat bezala ala hiru azpimultzo osatua) eta zertarako erabiltzen dugun hiru deitura horietako bakoitza (multzo osoa ala azpimultzo bana izendatzeko).

Bi ikuspegiak elkarren osagarri baitira, biak baliatuko ditugu hemen. Gauzak ez nahastearren, ordea, hobe dugu laugarren termino bat erabiltzea multzo osoa izendatzeko. Oraingoan, egokiagorik aurkitu arte, *preskripzioa* baliatuko dugu, esan bezala, nahiz eta gaztelaniazkoa izan (Idiazabal, 1992: 163).

Horiek horrela, bi puntutan jardungo dugu artikulu honetan: lehenean, preskripzioaren hiru sailak (azpimultzoak) aurkeztuz eta landuz; eta, ondoren, preskripzioa era osoagoan azalduz, batetik, hiru sailek *continuum* bat osatzen dutela ikusiz; eta, bestetik, preskripzioa oinarritzko hizkuntz ekintza dela berretsiz. Hortaz, oinarritzko kontuetara mugatuko gara hemen, eta beste baterako uzten dugu xehetasun handiagoaz jorratzea.

## **1. Preskripzioa: hiru azpimultzo**

Hasteko, azpimultzo bakoitzeko testu bana aztertuko dugu, oso soil bada ere. HIZPIDE 53.ean aurkeztu genituen: 1) aginduzkoa (“Zer egin seme-alabak nabigatzen ari direnean?”; HABE, 2001), 2) instrukziozkoa (“Kontzentrazio-arazorik?”; HABE, 2000) eta 3) prozedurazkoa (“Sagardoa egiteko prozesua”; IKA, 1998).

Baina, aurretik, beharrezkoa da ohar bat egitea. Izan ere, formaz –batik bat, adizkiei erreparatuta– horrela izenda ditzakegu hiru testu horiek, hurrenez hurren: aginduzkoa, instrukziozkoa eta prozedurazkoa. Edukiaz –esanahiaz–, ordea, lehenengo testua gehiago da instrukziozkoa aginduzkoa baino (agindu-forma duten instrukzioez osatutako testua); beste bietan, berriz, uztartuago doaz izena eta izana. Hemen, dena den, formaren arabera sailkatu ditugu; ahaztu gabe, jakina, bereiz ere joan daitezkeela forma eta esanahia.

Testuak aztertzerakoan, adizkiak soilik hartuko ditugu kontuan (esaldi nagusietako adizkiak, eta baldintza-adizkiak), eta horiek gauzatzen dituzten funtzioak; modalizazioa, barne. Letra lodiaz eta azpimarratzen nabarmenduko ditugu aginte-adizkiak, partizipio ez-jokatuak, baldintza-adizkiak eta *behar izan* adizkiak; letra lodiaz, *balorazio-adjektiboak + izan* formak eta modalizazioak; eta, azkenik, azpimarra soilaz,

azalpen-adizkiak (burutu gabeak) eta geroaldi-adizkiak. Nabarmentze horiek, funtsean, azpimultzo bakoitzaren ezaugarri nagusiak adierazten dituzte.

(Ezeren okerrik ez bada, datorren HIZPIDE batean –57.ean– landuko ditugu, modalizazioa eta aditz-kohesioa. Lehen hurbilpen gisa, ikus modalizaziorako, Bronckart, 1996: 132-133; 328-334; eta aditz-kohesiorako, 127-130; 277-316.)

## **Agindua**

Lehenengo testua hobeto ulertzeko, kontuan izan behar da egunkari batekoa dela: *Gara*-koa. Alegia, kazetaria ohiko irakurleari mintzo zaiola, azalpen eta itzulungururik gabe, gauzak ahalik zuzenen adieraziz. (Horrexegatik da formaz aginduzkoa, nahiz eta edukiaz instrukziozkoa izan.)

### **1. Zer egin seme-alabak nabigatzen ari direnean?**

2. **Saia zaitetz** Internet senide arteko aktibitate bihurtzen. Seme-alabekin **nabigatu** sarean, eta **ez ezazu** ordenagailua beren logelan **utzi**. Berekin zauden bitartean, sarearen erabilera arduratsu eta seguruari buruz **hitz egin dezakezu**. **Ikas ezazu** teknologiari buruz, galdera asko **egin** eta **ez zaitetz lotsa** seme-alabek zuk baino gehiago **badakite**.
3. Umeei **irakatsi behar zaie** inoiz ez dizkiotela norberaren datuak eman behar *online* ezagutzen dituzten pertsoneri, bereziki sareko eztabaida-leku eta topa-lekuetan ezagutzen dituztenei.
4. Seme-alabei **azaldu behar zaie** inoiz ez dutela *online* ezagutu duten pertsona batekin hitzordurik antolatu behar. **Esan iezaiezu**, halaber, norbait horrelakorik **egiten saiatzen bada**, zuri jakinarazteko berehala.
5. **Ipin itzazu** etxean Interneten erabilerari buruzko arauak. Noiz ibili eta zenbat orduz nabiga dezaketen umeek. **Informa zaitetz** seme-alabak babesteko dauden kontrol-mekanismoez: iragazki-softwareak eta merkatuan dauden beste hainbat aukera.
6. Iraingarri den posta elektronikorik edo bestelako komunikaziorik **jasotzen badute**, ez erantzuteko **esaiezu** seme-alabei. Deseroso sentitzen diren web orri edo *chat-room* batean **badaude**, lehen baino lehen handik irtetea ere **gomendatu**. **Adieraz iezaiezu** edonolako komunikazio iraingarririk **jasoz gero** zuri erakutsi behar dizutela, baina argi **adierazi** ez zarela haiekin haserretuko eta errua ez dela berena. Harreman irekiak eta konfiantza edukitzea oso **garrantzitsua da** horretarako.
7. Zure seme-alabak edo beste umeren bat arriskuan dagoela **uste baduzu**, dagokion agintaritzarekin harremanetan **jar zaitetz** lehenbailehen.

Guztira, hogeita bost forma azpimarratu ditugu. Horietako hamar aginte-adizki dira, bost partizipio ez-jokatu, sei baldintza-adizki eta bi *behar izan*. (Taket arteko zenbakiak [ ] lerrokada adierazten du.)

Aginte-adizkiak: saia zaitetz [2], ez ezazu utzi [2], ikas ezazu [2], ez zaitetz lotsa [2], esan iezaiezu [4], ipin itzazu [5], informa zaitetz [5], esaiezu [6], adieraz iezaiezu [6], jar zaitetz [7].

Partizipio ez-jokatuak: egin [1], nabigatu [2], egin [2], gomendatu [6], adierazi [6].

Baldintza-adizkiak: badakite [2], egiten saiatzen bada [4], jasotzen badute [6], badaude [6], jasoz gero [6], uste baduzu [7].

*Behar izan*: irakatsi behar zaie [3], azaldu behar zaie [4].

Horiek jo ditzakegu oraingoz –datu gehiagorik izan arte– agindu-adizkitzat. Normala da hala izatea lehenengo bi sailtakoak eta azkenekoak. Harrigarriagoa da, ordea, baldintza-adizkiak ere tartean izatea. Lehen momentuan harrigarria da, baina berehala ohituko gara: maiz-maiz azalduko zaizkigu baldintza-adizkiak aginduzko testuetan.

Horietaz gain, *balorazio-adjektiboa* + *izan* bat ere badago testuan, eta modalizazio bat.

*Balorazio-adjektiboa* + *izan*: garrantzitsua da [6].

Modalizazioa: hitz egin dezakezu [2].

## **Instrukzioa**

Ondorengo testu honek ere aurrekoaren antzeko testuingurua du, baina ñabardura batzuekin. Kazetaria du idazlea; gaztea, irakurlea; eta argitalpena, berriz, herri-mailako aldizkari bat: *Donostiako Gaztetxulo*.

### **1. Kontzentrazio-arazorik?**

2. Ikasteko, lan egiteko edo beste edozertarako kontzentrazio-arazokak **badituzu**, hona hemen sei aholku, lan-orduei ahalik eta etekin handiena ateratzeko.
3. 1. ORDURIK ONENA **AUKERATU**
4. **Komenigarria da**, lan egiteko edo ikasteko, egunero ordutegi bera izatea. Zenbaitek etekin handiagoa lortzen dute goizean lan eginda; eta beste batzuek, aldiz, arratsalde-gauean. Dena den, kontzentrazioarako ordurik **onenak** honako hauek **dira**: goizean, 08:00etatik 12:00etara; eta arratsaldean, 19:00etatik aurrera.
5. 2. ATSEDENA **HARTU**
6. Noizbehinka lana utzi eta etenak **egin behar dira**. **Hobe da** atsedeen laburrak egitea maiztasun handiarekin, gutxi eta luzeak egitea baino. Ordu erdiro edo hiru ordu laurdenero bost minutuko tarte hartzea **egokiena izango litzateke**.

7. 3. HELBURUAK **JARRI**
8. Egunero lanean edo ikasten hasi baino lehen, helburu batzuk **jar izkiozu** zeure buruari. **Hasi** kontzentrazio-behar handiena eskatzen duten gaiak lantzen; eta gainerakoak bukaerarako **utzi**; nekaituta zaudenerako, alegia.
9. 4. LEKU EGOKIA **BILATU**
10. Toki erosoan **lan egin behar da**; baina ez **du** erosoegia **izan behar**, ordea. Argiak zuria edo urdinxka **izan behar du**, gutxiago nekatzen du-eta. Tenperatura ere **garrantzitsua da**; 20 gradu ingurukoa **da onena**.
11. 5. KONTUZ KAFEAREKIN
12. Kafea bizigarria **da**, eta logurari aurre egiteko **erabil daiteke**. Dena den, nekatuta **egonez gero**, antsietatea **sor dezake**. Gauza bera **gerta daiteke** tabakoarekin.
13. 6. MUSIKA KLASIKOA
14. Musika **lagungarria izaten da** kontzentrazioa lortzeko. Hala ere, ez **du** edozein musikak **balio**. Musika klasikoa edota letrarik gabekoa oso **ona da**. Kantu ezagunak edota letradunak **aukeratzen baditugu**, berriz, kontrakoa **lortuko dugu**.

Hogeita bederatzi forma nabarmendu ditugu, gutzira. Horietako hamalau, agindu-adizkitzat jo ditugu arestian.

Aginte-adizkia: jar izkiozu [8].

Partzipio ez-jokatuak: aukeratu [3], hartu [5], jarri [7], hasi [8], utzi [8], bilatu [9].

Baldintzako adizkiak: badituzu [2], egonez gero [12], aukeratzen baditugu [14].

*Behar izan*: egin behar dira [6], lan egin behar da [10], du izan behar [10], izan behar du [10].

Horiekin batera badira, ordea, instrukzio-adizkitzat har ditzakegunak. Hamahiru dira. Hasteko: balorazio-adizki bat eta *balorazio-adjektiboa* + *izan*, zazpi.

Balorazio-adizkia: du balio [14].

*Balorazio-adjektiboa* + *izan*: komenigarria da [4], onenak dira [4], hobe da [6], garrantzitsua da [10], da onena [10], lagungarria izaten da [14], ona da [14].

Testuan badugu beste *balorazio-adjektiboa* + *izan* bat ere. Baina hau modalizazioa da:

Modalizazioa: egokiena izango litzateke [6].

Gainera, beste hiru modalizazio ere badaude. Eta hirurak dira modalizazio pragmatiko.

Modalizazio pragmatikoak: erabil daiteke [12], sor dezake [12], gerta daiteke [12].

Lehen esan bezala, hurrengo HIZPIDE batean –57.ean– landuko dugu modalizazioa; modalizazioen sailkapena, barne. Baina aurrera dezakegu, llabur bada ere, Bronckartek lau modalizazio-mota bereizten dituela: logikoa (mundu objektiboari dagokiona), deontikoa (gizarte-munduari dagokiona: ohiturei, arauiei...), pragmatikoa (norbaiten edo zerbaiten egiteko ahalmenari dagokiona) eta apreziatiboa (enuntziatzailearen mundu subjektiboari dagokiona). Aztertu berri dugun testuko modalizazioez, esan dugu: azken hirurak pragmatikoak dira; aurrekoa, berriz, logikoa.

Azkenik, nabarmendutako beste hiru forma gelditzen zaizkigu aipatzeko:

Azalpen-adizkiak: lortzen dute [4], da [12].

Geroaldi-adizkia: lortuko dugu [14].

Laburbilduz, lerratze bat dago instrukzio-testu honetan, aurreko testuarekiko. Agindu-testuan, aginte-adizkiak dira protagonista, partizipio ez jokatuekin batera; instrukzio-testuan, berriz, *balorazio-adjektiboak + izan* (eta adizkia), berriro ere partizipio ez jokatuekin batera, eta modalizazioak ere tarteko. Izan ere, instrukzio-testua, azken batean, agindu-testu leundua da.

#### *Prozedura*

Hirugarren testu hau, berez eskolan lantzeko sortua izan ala ez, dibulgazio-testu ere izan zitekeen, aurreko bien antzera: kazetari batek idatzia ohiko aldizkari edo egunkariren batean.

### **1. Sagardoa egiteko prozesua**

2. Lehenik, sagar mota ezberdinak kantitate ezberdinetan nahasten dira: gozoak eta garratzak. Azken sagar mota horrek sagardo bizia ematen du. Adituek diotenaren arabera, zenbat eta sagar mota gehiago nahastu, orduan eta sagardo hobea ateratzen da.
3. Sagarrak nahastu ondoren, uretan garbitzen dira.
4. Hurrengo pausoa sagarra txikitzea da. Sagarra makina batean sartzen da; eta honek sagarrak puskatu egiten ditu, baina hazia apurtu gabe; bestela, muztioak zapore txarra **hartuko luke**. Gelditzen diren hondarrei patsa deitzen zaie.
5. Hirugarren pausoa dolareratzea da. Patsa dolarera (prentsara) pasatzen da. Han, edozein tramankuluz zapaltzen da: eskuz, palan-

kaz, motorez, hidraulikoki... Zapaltze horren bidez lortzen den likidoa muztioa da.

6. Ondoren, ontziratze prozesua dator. Muztioa dolaretik ontzira aldatzea da. Ontziak neurri, bolumen eta forma askotakoak dira. Guk sagardotegietan aurki dezakeguna 10.000 litrotik gora duen ontzia da, eta (K)UPELA, UPA edo KUPA deitzen zaio.
7. Jarraian, irakinaldiak datoz. Muztioa, ontziaren barruan bi irakinaldi pasa ondoren, sagardo bihurtuko da. Lehenengo irakinaldia azkarra da, eta ontzia irekita **utzi behar da**. Hamar egunetik hila-bete t'erdirako irakinaldia da hau.
8. Bigarren irakinaldia lehenengoa baino lasaiagoa da. Ontzia geldigeldi **eduki behar da** bi-lau hilabetetan. Oraingoan, muztioaren azukre guztia alkohol eta anhidrido karboniko bihurtuko da, sagardoa egin arte. Muztioa gazituz eta garbituz joango da.
9. Bukatzeko, sagardoa kupelatik botiletara pasatuko da. Kupeletan dagoen sagardoa lauzpabost hilabetera botilaratuko da. Orduan, sagardoak 5 graduko alkohola izango du eta 1.000 eta 1.010 bitar-teko dentsitatea. Saltzeko prest dago.

Nabarmendutako formak aztertuz, agerikoa da aurreko bi sailetakoen eta hirugarren honen arteko aldea.

Testu honetan, ez dago aginte-adizkirik, ez partizipio ez-jokaturik (aginte-baliorik duenik), ez baldintza-adizkirik, ez *balorazio-adjektibo + izan* formarik. Eta bitan soilik erabiltzen da *behar izan* aditza (utzi behar da [7] eta eduki behar da [8]).

Guztiz bestela gertatzen da azalpen-adizkiarekin. Hogeita bitan erabiltzen da:

Azalpen-adizkiak: nahasten dira [2], ematen du [2], ateratzen da [2], garbitzen dira [3], da [4], sartzen da [4], puskatu egiten ditu [4], deitzen zaie [4], da [5], pasatzen da [5], zapaltzen da [5], da [5], dator [6], da [6], dira [6], da [6], deitzen zaio [6], datoz [7], da [7], da [7], da [8], dago [9].

Ondoren dator geroaldi-adizkia, sei aldiz.

Geroaldi-adizkiak: bihurtuko da [7], bihurtuko da [8], joango da [8], pasatuko da [9], botilaratuko da [9], izango du [9].

Azken batean, sail honetan bi adizki-mota hauek dira protagonista, aurreko bietan ez bezala. Horrek argi erakusten du zer-nolako tartea eta jauzia dagoen bi lehenengoen eta hirugarren testu honen artean.

Eta modalizazio bakar bat azaltzen da: modalizazio pragmatikoa.

Modalizazio pragmatikoa: hartuko luke [3].

## 2. Preskripzioa oro har

Orain arte xehe samar bezala, bigarren puntu honetan oro har jardungo dugu, preskripzioaren bi ezaugarri nabarmenduz: 1) nola hiru azpimultzoek *continuum* bat osatzen duten eta 2) nola preskripzioa oinarrizko hizkuntz ekintza den.

*Hiru azpimultzoak,  
continuum-a osatuz*

Hiru testu gutxi izanik ere, bide ematen dute ikusteko nola *continuum* bat osatzen duten hiru azpimultzoek, preskripziozkoa deitu dugun testu-motaren baitan: mutur batean, aginduzkoa; tartean, instrukziozkoa; eta beste muturrean, prozedurazkoa, azalpenezko testu-motatik oso gertu.

Bakoitzaren bereizgarriak ere azal ditzakegu. Mutur batean, aginduzkoan, aginte-adizkiak eta partizipio ez-jokatuak dira protagonistak; beste muturrean, prozedurazkoan, berriz, azalpen- eta geroaldi-adizkiak. Tartean –aginduzkotik askoz ere gertuago, ordea, prozedurazkotik baino– instrukziozko testua dago, partizipio ez-jokatuak eta *balorazio-adjektiboak + izan* formak protagonista dituela.

Bestalde, indar handiz azpimarratzekoa da baldintza-adizkiek lehenengo bietan duten egitekoa. Hain zuzen, testu-mota horietan azalduko dira behin eta berriro.

Datu horiek taula batera ekarriz amaituko dugu puntu hau.

	Agindua	Instrukzioa	Prozedura
Aginte-adizkiak	10	1	0
Partizipio ez-jokatuak	5	6	0
Baldintza-adizkiak	6	3	0
Behar izan	2	4	2
Balorazio-adizkia	0	1	0
Balorazio-adj. + izan	1	7	0
Modalizazioak	1	4	1
Azalpen-adizkiak	0	2	22
Geroaldi-adizkiak	0	1	6

*Preskripzioa:  
oinarrizko hizkuntz  
ekintza*

Bereizgarri horiek garamatzate, hain zuzen, preskripzioa ere oinarrizko hizkuntz ekintzat hartzera, kontaktarekin eta azalpenarekin batera. Hain dira funtsezkoak eta nabarmenak, izan ere, hiruen arteko aldeak.

Hala, adizkietara mugatuz, iragana eta adizki burutua ditugu kontaktaren protagonistak; azalpenarenak, berriz, orainaldia eta adizki ez-burutua eta puntuala; eta preskripzioan, muturrik urrunenean, aginte-adizkia, partizipio ez-jokatua eta baldintza-adizkia, ikusi berri dugunez.

Pixkana-pixkana joango gara kontu hauek osatzen eta xehatzen, oinarrizko kurrikulua garatu eta eguneroko jardun didaktikoan gauzatu ahalean.

## **Bibliografia**

- Bronckart, J-P.** 1996. *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*, Lausanne - Paris, Delachaux et Niestlé.
- Esnal, P.** 2003a: Diskurtso-tipoak. *Hizpide*, 52: 34-43.
- Esnal, P.** 2003b. Testu-motak: sekuentzia eta hizkuntz ekintza. *Hizpide* 53: 55-66.
- HABE.** 1999. *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua*. Donostia: HABE.
- Idiazabal, I.** 1992. Irakaskuntza elebiduna eta aginduzko testu idatziak. In Idiazabal, I. (ed.): *Pedagogía del texto. Testuaren pedagogía*. Bilbo. Labayru Ikastegia: 161-176.

## **Adibide-iturriak**

- HABE** (2000): “Kontzentrazio-arazorik?”, in *DB Dokumentu biltegia*: 670; *Gaztetxulo* aldizkari-tik hartua. [EKP prestatzen Leintz Udal Euskaltegiko irakasleek aukeratutako testua eta haiekin batera landua; eta zertxobait (huskeriaren bat edo beste) egokitua.]
- HABE** (2001): “Zer egin seme-alabak nabigatzen ari direnean?”, in *DB Dokumentu biltegia*: 1.906; *Gara* egunkari-tik hartua (2001.09.28). [Iruñeko NAPIko euskara-irakasleek aukeratutako testua eta haiekin batera landua.]
- IKA** (1998): “Sagardoa egiteko prozesua”, in *Ikaslearen liburua. 5. urratsa*: 323-324; Ardatz Kultur Elkartea. [EKP prestatzen Pasaiako Udal Euskaltegiko irakasleek aukeratua eta haiekin batera landua; eta zertxobait (huskeriaren bat edo beste) egokitua.]